

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: SAXOFOIA 2020ko MARTXOaren 10a

2020ko MARTXOaren 10ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du saxofoi espezialitatean. Bertan esku hartuko dute Miguel Ángel Lorente eta Thomas Barthélémy saxofoi irakasleek, eta Musikeneko saxofoi ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten saxofoi ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten saxofoi ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunean eskura duzen **izen-emate orriaren** bitartez

Jarduanaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Musikeneko saxofoi ikasleekin egiten den lana erakustea.
- Ikasle bakoitzaren mailaren balorazioa egitea proposatzen dituen obrak entzunez.
- Hautagaiek gaintitu beharko dute sarrera probaren inguruan argibideak ematea.

Jarduera egitasmoa

10.00-11.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Saxofoi espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

11.00-14.00: Miguel Ángel Lorente eta Thomas Barthélémy irakasleek Musikeneko saxofoi ikasleei emango dieten eskoletara joan ahal izango dira parte hartzaileak.

14.00-15.30: Hala nahi dutenentzat bazkaria irakasle eta ikasleekin batera.

15.30-18.00: Miguel Ángel Lorente eta Thomas Barthélémy irakasleek banakako eskolak emango dizkiete hala eskatzen duten parte hartzaileei.

19.00: entzunaldia Musikeneko saxofoi ikasleen eskutik.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu bukuarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus